

TESTU-IRUZKINERAKO ESKEMA

1. Sarrera

Puntu honetan testuarekiko aurreneko hurbilketa egingo dugu. Noiz, nor, nork galderei erantzun behar diegu, labur, eta testuari buruzko informazio batzuk eman: testua lehenengo mailakoa den ala bigarren mailakoa den (hots, iturri zuzena den, ala zeharkakoa: tratatzen duen garaian egindakoa, ala ondorengo berrelaborazio bat –historialarien lanak, oro har, bigarren mailakoak dira–); zer motatako testua den (ekonomikoa, literarioa, judiziala, demografikoa...) eta testu pribatua edo publikoa den (igorlearen ikuspuntutik –estatuko administrazioen batean ondutako testua publikoa litzateke; gainontzekoak pribatuak–; eta hartzailearen ikuspuntutik –lege bat publikoa litzateke; eskutitz partikular bat, pribatua). Egileari buruz –ezaguna bada– ahal dugun guztia adieraziko dugu, eta hitz bereziren bat edo gehiago aurkitzen badugu, hemen azal daiteke haren esanahi historikoa.

2. Ideia nagusiak.

Bospasei lerrotan laburbiltzen dira hemen testuaren ardatz nagusiak, ahal bada, eta bat baino gehiago dira, ideia horien garrantzia mailakaturik. Testuaren analisi-unerako balioko digu eskema honek.

3. Testuinguru historikoa

Testuaren garaiko eta inguru geografikoko ezaugarri historiko nagusiak laburbilduko dira hemen, batik bat testuaren analisisian horrenbeste edo batere agertuko ez diren aspektuetan sakonduz. Iruzingileak testua kokatzen den garai historikoa ezagutzen duela frogatuko du atal honekin.

4. Testuaren analisia

Hauxe da iruzkinaren muina. Testuak dioena azaltzea du helburu. Ez da testua parafraseatu behar, hots, testuak dioena errepikatu beste hitz batzuekin, baizik eta testuaren atzean dauden egitate, zergati eta gertakari historikoak azalera. Bigarren puntuan aurreratu dugun ideia nagusien mailaketa jarraituz egin dezakegu, edo testuaren beraren garapenari eutsiz, lerroz-lerro edo paragrafoz-paragrafo. Azken batean, testuari gure ezaguera historikoak aplikatzean datza analisia.

5. Ondorioak

Iruzkinean zehar esandakoaren laburpen txikia, azpimarratuz zergatik iruditzen zaigun (edo ez) inportantea garai edo gertakari historiko bat azaltzeko, eta bertan tratatzen denak etorkizunean izan zituen ondorioak edo inplikazioak aurreratu.

TAULA EDO GRAFIKO BAT IRUZKINTZEKO ESKEMA

1. Sarrera

Puntu honetan taula edo grafikorako lehenengo hurbilketa egingo dugu. Noiz, nor, nork galderei erantzun behar diegu, labur, eta taulari edo grafikoari buruzko informazioa eman. Taularen edo grafikoaren gaia zein den azaldu behar dugu, zer datu gurutzatzen diren bertan, etab.

2. Testuinguru historikoa

Taularen edo grafikoaren garaiko eta inguru geografikoko ezaugarri historiko nagusiak laburbilduko dira hemen, batik bat gero analisisian horrenbeste edo batere agertuko ez diren aspektuetan sakonduz. Iruzkingleak taula edo grafiko kokatzen den garai historikoa ezagutzen duela frogatuko du atal honekin.

3. Deskribapena

Taulan edo grafikoan azaltzen diren mugimenduak deskribatuko dira hemen: hazkundeak, jaitsierak, erritmoak, banaketak. Deskribapen soilera mugatuko gara, zergatiak alde batera utziz. Inportantea da hau ondo egitea, interpretazioa oker egin baitezakegu deskribapena gaizki burutuz gero.

4. Analisia

Hauxe da iruzkinaren muina. Taulan edo grafikoan eskaini zaizkigun datuak – lehen deskribatu ditugunak– azaltzea du helburu. Ez da berriro deskribatu behar, hots, 3. puntuan egin duguna errepikatu beste hitz batzuekin, baizik eta taularen edo grafikoaren atzean dauden egitate, zergati eta gertakari historikoak azalratzea. Azken batean, taulari edo grafikoari gure ezaguera historikoak aplikatzean datza analisia.

5. Ondorioak

Iruzkinean zehar esandakoaren laburpen txikia, azpimarratuz zergatik iruditzen zaigun (edo ez) inportantea garai edo gertakari historiko bat azaltzeko, eta bertan tratatzen denak etorkizunean izan zituen ondorioak edo inplikazioak aurreratuz.

LIBURU-IRUZKIN EDO KRITIKA BAT EGITEKO ESKEMA

1. Fitxa bibliografikoa

Liburu baten iruzkina egiteak haren azterketa ahalik eta sakonena egitea esan nahi du, eta, ondorioz, haren berri zehatza ematek hasi behar dugu, egilearen abizena eta izena ipiniz (orden horretan), lanaren izenburua eta azpi-izenburua (kurtsibaz), argitaratze lekua, argitaletxearen izena, argitaratze data, eta orrialde kopurua.

2. Egilearen aurkezpena

Hurrengo pausua egilearen berri ematea da, laburki. Nor den, zein lanbide duen edo izan duen, ze beste lan nagusi argitaratu dituen, eta, ahal dela, zein den bere ildo ideologiko edo politikoa.

3. Laburpen orokorra

Hauxe da, 1. mailako ikasle baten ezagutza-mailari dagokionean, gehien sakondu beharreko atala. Liburuaren tesiaz edo gaiaz arituko gara hemen, saiatuko gara azaltzen zein den egileak aukeratu duen talaia edo ikuspuntua argitzen, eta, batez ere, lanaren egitura jorratuko dugu (nola dagoen banatuta atal ezberdinetan), atal horien edukiekin eta liburuaren ondorioekin batera; ahalik eta zehatzenak eta objektiboak izaten saiatuko gara. Batzuetan komenigarria izan daiteke egilearen beraren hitzak erabiltzea (komatxoaren artean beti) punturen bat argitzeko edo zabaltzeko.

4. Liburuaren azterketa kritikoa

Hau da, liburu-kritiketan, funtsezko atala, nahiz eta, lehenengo ikasturteko ikasleen kasuan ez da honetan gehiegi intsistituko, ezagutza bibliografikoaren sakontasun falta dela eta. EZ DA iritzi pertsonala ematea, liburuaren ideien konparaketa eta balorazioa baizik, gai berdineko beste egileen liburuen ekarpenak eta gaiaren inguruko ezagutzaren egoera orokorra kontuan hartuta. Liburuak egiten duen ekarpenaren inguruan hitz egin beharko litzateke hemen, beraz: berritasunik ekartzen duen ala ez, ze puntutaraino osatzen dituen (ala ez) gaiaren inguruko aurreko ezaguera historiografikoak, etab. Izan ere, helburu hau laugarren zein bosgarren puntuan burutu daiteke (hurrengoan alegia).

5. Ondorioak

Kritikan zehar esandakoaren laburpen txikia, azpimarratuz zergatik iruditzen zaigun (edo ez) liburua inportantea gai, garai edo gertakari historiko bat azaltzeko. Esan bezala, azterketa kritikoa barruan egin daitekeen zerbait da.